

LANAK TRENBIDEAREN **JABARI PUBLIKO** EDO **BABES** GUNEETAN.

▣ *Aurretiatzko baimena behar duten lanak:*

- ☑ Eraikuntzak, berreraikuntzak, urbanizazio lanak, instalazio finkoak edo behin behinekoak, lurbeteak eta lubetak eusteko hormen eraikuntzak, itxiduren eraikuntzak, etab.
- ☑ Aireko eta lur azpiko gurutzaketak; elektrizitate, telefono eta telegrafo lineen ezarpenak; hornidura eta saneamendu sareen bideratzeak edo ezarpenak.
- ☑ Zuhaitzen landaketak eta mozketak.
- ☑ Materialen, makinen, erregaien, olioien, hondakinen... gordetzea edo biltegitratzea.
- ☑ Beraien ezaugarriak edo hurbiltasuna direla eta ustiapenean arriskua edo mugak ezar ditzakeen eta trenbide azpiegituraren jabari publiko edo babes gunean garatzen den beste edozein.

▣ *Aurkeztu beharreko dokumentazio mota:*

- ☑ Egin beharreko lanak edo jarduerak bultzatzen dituen erakunde sustatzaileak edo pertsona interesatuak ETS-ko Idazkaritza Nagusiari zuzendutako baimen eskaria. Bertan, erakunde sustatzaileari buruzko datuak, izena eta abizenak, IFZ/NAN, helbidea eta harremanetan jartzeko modua adierazi behar dira.
- ☑ Egin nahi den obraren proiektua edo, lekua, izaera eta trenbidearekiko dituen ezaugarriak identifikatzeko aukera emango duten behar besteko zehaztasuneko planoak.
- ☑ Egoki izan daitekeen eta interesatuaren iritziz egin beharreko lanei edo obrari buruzko alderdiak argitzen lagundu dezakeen beste edozein.

▣ *Eskariak aurkezteko lekua:*

- ☑ IDAZKARITZA NAGUSIA RED FERROVIARIA VASCA - EUSKAL TRENBIDE SAREA
- ☑ Done Bikendi kalea, 8 -14. solairua (Albia eraikina) 48001 BILBAO (Bizkaia) Telefonoa: 946 572 600 Faxe: 946 572 601

▣ *Legedia aplikagarria:*

- ☑ Tren Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legea (2015eko irailaren 30eko B.O.E.).
- ☑ Sektorearen Araudia onetsi duen abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretua (2004ko abenduaren 31ko B.O.E.).
- ☑ Euskadiko Autonomia Erkidegoan Tren Sektorearen Lurralde Sektore Plana onetsi duen otsailaren 27ko 41/2001 Dekretua (2001eko apirilaren 9ko E.H.A.A.).

▣ *Ebazpenerako epea:*

- ☑ 3 hilabete, eskabidea aurkeztu denetik.

▣ *Erantzun ezaren ondoreak:*

- ☑ Ez da aintzat hartzen.


▣ *Administrazio bidearen amaiera:*

- ☑ Ebazpenak EZ dio amaierarik ematen administrazio bideari.

▣ Ohar interesagarriak: Tren Sektoreari buruzko 38/2015 Legea eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan Tren Sektorearen Lurralde Sektore Plana

- ☑ -Jabari publiko gunea.

1. Jabari publiko gunea hartzen duten Interes Orokorreko Trenbide Sarearen parte diren trenbideak eta zortzi metroko lur-gunea, plataformaren albo bakoitzean, horizontalean neurtuta, haren ardatzarekiko elkarzutean, zabalgunearen kanpoko ertzetik neurtuta.
2. Zabalgunearen kanpoko ertza lurbetearen, lubetaren edo, hala denean, ondoko euspeneko hormen eta lur-gune naturalaren arteko intersektzioa da.
3. Zubiak, bide-zubiak, egiturak edo antzeko lanak bezalako kasu berezietan, obren ertzaren proiektzio bertikalaren lerroek lur-rean hartzen dituzten puntuak hartuko dira zabalgunearen kanpoko ertz gisa, eta beti ere, aipaturiko lerroen arteko lurra jabari publikoaren barruan geratuko da.
4. Tuneletan, jabari publiko gunea, obraren kontserbazio eta mantentze lanak bermatzeko beharrezkoak diren lurren azalerara zabalduko da, lurraren ezaugarri geoteknikoak, lurrikiko altuera eta elementuen kokagunea kontuan izanik. Horretarako aireztapena eta sarbideak bezalako abaguneak kontuan izango dira.



Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoak eta Izaera Pertsonaleko Datuen Titulartasun Publikoko Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentzia Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa betez, adierazi behar da zuk emandako datu pertsonalak, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoa titular eta arduradun den fitxategian sartuko direla.

Fitxategiaren xedea aurkeztutako obra eskarien kudeaketa eta azterketa da, ondoren onartu edo baztertu ahal izateko.

Nahi izanez gero, datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko, aurka agertzeko edo/eta baliogabetzeko eskubideak bete ahal izango dituzu, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera, Erakunde Publiko honetan Aholkularitza Juridiko Zerbitzura zuzenduz.